

Etzi taldea - Ingumarket proiektua

Kanalak

Ingumarket internet bidezko zerbitzu bat izanik, kanala zuzena izango dela argi dago. Hori dela eta, komunikazio-kanalak daude gure esku, hots, bezeroekin izango dugun komunikazioa internet bidez egingo da. Horretaz gain, zerbitzu pertsonalizatua eskainiko dugunez, telefono eta posta bidezko komunikazioa ere eskainiko da.

Enpresei dagokionez, beraiekin harremanetan jartzeko, aurrez aurreko komunikazioa zein digitala edo telefono bidezkoa erabiliko litzateke. Hau da, lehenik eta behin, beraiekin kontaktuan jarriko ginateke telefono edo posta bidez, eta gero, beraien lantokia bisitatuko genuke.

Produktuen banaketa-kanalak eta salmenta-kanala, berriz, enpresen esku geldituko da. Baina, *Ingumarket* eskuratu ahal izateko, interneten jarriko da eta mugikorretan -besteak beste- instalatu ahal izango da. Hots, AppStore-ean eta PlayStorean eskuragarri jarriko litzateke. Banaketa-kanalekin jarraituz, sare sozialetan zein beste hedabide batzuetan iragarkiak jarriko ditugu. Gainera, enpresa bakoitzak bere webgunean gure app-aren parte dela adieraziko du; webgunea ez duten kasuan, enpresek ohiko bezeroei *Ingumarket*-en berri emango diete. Are gehiago, nahi izanez gero, gure proiektuaren parte direla adierazten duen liburuxka eskuratu ahalko dute.